


## 2.BEZERO SEGMENTUA

- Zer bezero segmenturi zuzendutako zerbitzua da Haur-Gau?

- Gure zerbitzuak, adinari dagokionez, ez du segmenturik izango, hau da, edozein adinetako gurasoei eskainiko zaie gaueko haurtzaindegia. Gure zerbitzua nolabait limitatua egongo balitz, guraso batzuk ez lukete gure haurtzaindegiaz gozatzeko aukerarik izango. Gainera, Haur-Gau ren bitartez jaiotza tasaren igoerari ekin nahi diogu, beraz bezeroei ez diegu adinarekiko limiterik jarriko.

- Gure konpetentzian kokatzen diren haurtzaindegietan alderaturik, bezero segmentua bi multzotan sailkatzen dira: Lehenik, gauez lan egiten duten gurasoak, besterik gabe beraien lanorduak gauetan dituztenak eta zaintzaile profesional bat kontratatzeko baliabiderik ez dutenak, eta bigarrenik, puntualitate faltarengaitik edo lan baldintzengaitik beraien humeei ezin dietenak ordu zehatz batean jaso ludoteka, haurtzaindegi edo heziketa zentroetatik.



- Haur-Gau ren kasuan, beste bezero segmentu batzuetan zentratzen gara, gure ingurunean konpetentzia zerora murrizteko eta bestelako zerbitzu bat eskaintzeko: Humeen gurasoek, gaueko aisialdiaz gozatzeko, noizbehinka atsedeneko gau batetaz gozatzeko edo bestelako jarduerak ekiteko. Orduan, esan genezake gure enpresa honen bezero segmentua diferentea dela jarduera hau eskaintzen duten beste enpresekin alderatuta. Izan ere, guk eskaintzen dugun jarduera gauez da eta hori egiten duten enpresak ez daude.

- Ondorioz, gure enpresan konfiantza osoa edukiko duten bezeroak edukiko ditugu beraien seme-alabak zainduko ditugulako gauez, beraiek, gurasoak, beraien lan egoerarengaitik edo bestelako ekintzak egin behar dituztelako, zaindu ezin dituzten bitartean.